

Etika-kodea

Aplikazio-eremua

Naturgas Energía Grupoko (NG, hemendik aurrera) lankide guztiei aplikatu behar zaie Etika Kode hau, barne direla Naturgas Energía Grupo S.A. jabe den edo hark kontrolatzen dituen sozietate guztiak –bazterrera utzi gabe aplikagarri zaizkion beste arau- edo lege-xedapen batzuk, edo dagokien eginkizunagatik bete beharra dauzkatenak–, baita lankide finkoak eta behin-behinekoak, zuzendariak eta enpresaz kanpoko kontu-ikuskariak.

NG Taldeko administrazio-organoetako kide, zuzendari eta langile guztiak sartu behar dira ‘lankide’ multzoan.

‘Bezero’ multzoan, berriz, NGk produktuz hornitzen edo zerbitzuak ematen dizkien pertsona fisiko edo juridiko guztiak.

‘Hornitzaileak’ multzoan, bestalde, NG produktuz hornitzen edo zerbitzuak ematen dizkieten pertsona fisikoak edo juridikoak sartu behar dira.

‘Interesdunak’, berriz, hauei deitu behar zaie: NGrekin enpresa, erakunde edo herritar gisara harremanik duten pertsona fisiko edo juridikoak, barne direla lankideak, hornitzaileak, alderdi kontrarioak, negozio-bazkideak edo NGrekin elkarlanean diharduen komunitateko kideak –*stakeholders* deitzen zaie–, betiere NG Taldearen gardentasunaren, elkarrizketaren eta NG Taldearen eta haren lankideen jokabide etikoan sinesten dutenak.

1. Legedia eta etika

1.1 Legedia betetzea

NGk eta haren lankide guztiek hitzematzen dute beteko dutela, jarduera guztietan, indarrean den legedia.

Eskura duen laguntza guztia eman behar die NGk ikuskatze- eta gainbegiratze-lanak egiten dituzten agintariei, haien eskariak bete eta inongo oztoporik jarri ez agintari horien ikuskatze-lanei.

1.2 Etika

NGk bermatzen du lankide guztien eskura jarriko duela Etika Kodea, eta ipiniko duela biderik komunikaziorako eta zalantzak argitzeko.

Etika Kode honen aplikazioa proaktiboa eta irekia izango da, eta dagokion araudiak erregulatua.

Lehentasuneko tresna izango du NGk Kode hau gorabehera etikoak konpontzeko. Bestalde, bermatu egiten du NGk bat etorriko dela Kodea gure Taldeak lan egiten duen herrialde guztietako legediekin.

2. Lan-giroko jokaera

2.1 Gardentasuna, zintzotasuna eta zuzentasuna

Zintzotasun, zuzentasun eta gardentasunik gorena izan behar dituzte gidari NGk eta Taldeko lankide guztiek.

Profesionaltasunez, arduraz eta arretaz bete behar dituzte lankideek beren eginkizunak, eta ahalik eta lan bikainena egiten saiatu.

Egiazko informazioa eman behar diete NGko lankideek bere agintariei, eta erabateko gardentasunez azaldu erabakiak eta jarduera profesionalak.

NGren printzipio eta interesei leial izan behar zaizkie beti lankideak. Berehala eta idatziz azaldu behar dizkio lankideak arduradunari bere

interes pertsonalen eta enpresarekiko leialtasunaren edo beste lankide batzuen artean sor daitezkeen auziak.

Lankideek hitzematzen dute NGrekin hitz egingo dutela enpresaz kanpoko beste jarduera profesionalen bat onartu aurretik, baldin eta jarduera horrek lankidearen independentzia mugatzen badu edo eragozten baditu haren eskumenak edo enpresaren jarduerak.

Elkarren ahaide edo ahaide pareko diren lankideek ez dute lan egin behar elkarrekiko zuzeneko harreman hierarkiko edo funtzionalean. Salbuespen gisara eta behin-behingo gertatzen bada horrelako egoerarik, bermatu behar da objektibotasunez egitea tarte horretan ebaluazio-prozesuak, lanaren balorazioa, lankideen promozioa...

Etika Kode honekin bat ez datorren jokabide ororen berri eman behar dute lankideek. Konfidentzialtasuna eta babes juridikoa bermatzen zaizkio informatzaileari, gure araudiak agintzen duenez; bidezko tratua, berriz, informaziogai izan denari.

Bermatu egin behar dute lankideek enpresako gaiei, bezeroei edo hornitzaileei buruzko konfidentzialtasuna. Enpresaren mesederako bakarrik erabili behar dute eskura duten informazioa, edo enpresak horretarako berriazko baimena emanaz gero.

Enpresaren ondarea babestu egin behar dute lankideek. Horretarako, negozio-prozesuetan bakarrik erabili behar dute, modu eraginkorrean betiere.

2.2 Lan-giroa

Bere lankideen hobekuntza pertsonal eta profesionalean inbertitzen jarraituko du NGk, eta bizimodu pertsonal eta profesional orekatsua izan dezaten ahaleginduko da.

Lankideen arteko harremanetan, zuzentasuna, gizabidea, adeitasuna eta profesionaltasuna sustatuko ditu NGk, baita guztien eskubide, irizpide eta ezaugarriak errespetatzea ere.

Lankideen segurtasuna, osasuna eta ongizatea lehen mailako lehentasunak ditu NGk. Lankide guztiek jakin, bete eta betearazi behar dituzte laneko segurtasun- eta higiene-arauak, baita hutsegite ororen berri eman ere, egiaztatuta badago.

NGren balioak onartu eta sustatu egin behar dituzte lankideek, eta bultzatu egin behar dituzte lankidetza eta norberaren ardura, eta aniztasuna onartu.

2.3 Giza kapitalaren garapena

Behar diren ahaleginak egin behar ditu NGk bere lankideen gogobetetasuna areagotu eta dagokien maila profesionala lor dezaten. Horretarako, bidezko soldatak ordaindu behar ditu, lan-giro segurua eta osasuntsua eskaini, eta garapen profesionalerako aukerak eskaini ibilbide osoan.

Etengabe saiatu behar dute lankideek beren jakintzak eta gaitasunak garatzen eta eguneratzen, baita enpresak sustatutako trebakuntza-saioak ahalik eta ondoena aprobetxatzen ere.

3. Giza eskubideak eta aukera-berdintasuna

3.1 Giza eskubideak

NGren iritziz, oinarrizko eta unibertsal behar dute izan giza eskubideek, nazioarteko konbentzio, hitzarmen eta ekimenetan oinarrituak betiere (Nazio Batuen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Lanaren Nazioarteko Erakundea, Nazio Batuen Mundu Hitzarmena...).

NGk ez du inoiz haurrik edo behartutako eskulanik erabiliko lanerako, eta saiatuko da beste batzuek ere erabil ez dezaten.

Atxiloketa arbitrarioen, torturaren eta exekuzioen aurka dago NG, eta eskubide hauen alde: bakezko helburuetarako antolatze eta elkartze eskubidea, ideia-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna, baita iritzi- eta adierazpen-askatasunaren alde ere.

3.2 Diskriminaziorik ez; aukera-berdintasuna

Lankide diren eta izan daitezkeen guztien aukera-berdintasuna aintzat hartzearen alde jardungo dela hitzematzen du NGk.

Gure enpresako lan-jarduera, -politika eta -prozeduren helburua da diskriminaziorik eta tratu desberdinik ez izatea arraza, generoa, orientazio sexuala, sinesmenak, egoera zibila, minusbalotasun fisikoa, jatorri etniko edo soziala, sorlekua edo sindikalgintza direla eta.

NGk bermatu egiten du bere lankideen osotasun moralerako eskubidea, eta norberaren duintasuna aintzat hartzen duten lan-kondizioak izatekoa. NG saiatzen da bere lankideak babesten indarkeria psikologikotik, eta gaitzetsi egiten du bere lankideen diskriminazioa eragiten edo haien sinesmenen aurka egiten duen jokabide edo jarrera oro (irainak, mehatxuak, isolamendua, inoren bizitza pribatuan sartzea, muga profesionalak jartzea...).

NGk ez du onartzen inongo jazarpen moral edo psikologikorik, ezta pertsonen duintasunaren aurkako jokabiderik ere.

4. Zintzotasuna

4.1 Ustelkeria eta eroskeria, debekatuta

Debekatuta daude ustelkeria-ekintza guztiak, pasiboak eta aktiboak, bai egitezkoak eta ez-egitezkoak, bai inoren mesederako egoera irregularrak sortzea edo mantentzea.

NGk eta haren lankideek ez diete diru-ekarpenik edo bestelakorik egin behar alderdi politikoei –haiek gure alde jarri edo haiengan eragitearren–, munduko inongo herrialdetan.

NG eta bere lankideek jakinarazi egin behar dute enpresari buruzko informazio garrantzitsu oro, baldin eta haren egoera ekonomikoan, sozialean edo ingurunean eragin kaltegarririk izan balezake.

NGk eta haren lankideen ez dute onartu behar enpresan edo lankidearengan eragiteko asmoz egiten den edo halakotzat jotzen inongo eskaintzarik. Zalantzarik izanez gero, idatziz jakinarazi behar dio lankideak bere nagusi hurbilari egoeraren berri.

4.2 Transakzio partikularrak enpresan

Lehia librearen aldeko jarduerak sustatu behar dituzte lankideek.

Informazio pribilegiatua –NG taldearen enpresetako balore-kotizazioan aldaketarik eragin dezakeena merkatuetan, bereziki emaitza-kalkuluak, erosketa edo aliantza garrantzitsuak, kontratu handiak eskuratzea edo ez eskuratzea– duten lankideek debekatuta daukate hau egitea informazio hori ofizialki argitaratu aurretik:

- beste inori ematea informazio hori;
- NG Taldeko enpresen, bazkide garrantzitsuen edo NG taldearekin harreman edo transakzioak dituzten enpresen balore higigarrien transakzioak egitea, Taldearentzat garrantzizko badira.

4.3 Akziodunekiko harremanak

Akziodunentzako aberastasuna sortzeko irizpideak hauek izan behar dute: jarduera profesionala, ekonomikoa, ingurumen-erantzukizuna eta garapen jasangarria kontuan hartzen dituen bikaintasun-konpromisoetan zehaztutakoak.

NGk hitzematen du bere akziodun guztiak berdin tratatuko dituela, eta garaiz helaraziko dizkiela guztiei behar dituzten informazioak. Egiak, gardentasunak eta zorroztasunak izan behar dute oinarri akziodunekiko harremanetan.

Akziodunei –banaka edo guztiei batera– ematen zaien informazioari dagokionez, arrisku finantzario, sozial eta ingurumenekoei buruzko informazioa eman behar die NGk haiei, eta arrisku horiek kendu edo murrizteko neurriak proposatu, bultzatu eta aplikatu behar ditu.

Behar diren gardentasun-, berdintasun- eta objektibotasun-bitartekoak eta arauak erabili behar ditu NGk akziodun indibidualen edo akziodun-taldearen interesak eta NG Taldearenak bereizteko, legeak babesten dituen eskubideei kalterik eragin gabe eta betebeharrak aintzat harturik, Taldeko kapital sozialean duten partaidetzaren arabera betiere.

5. Bezero eta hornitzaileekiko harremanak

Hornitzaileei dagokienez, indarrean dauden segurtasun-arauak eta –jarduerak betearazten saiatu behar du NGk haiekiko harremanetan.

Bezero eta hornitzaileekiko harremanetan, zuzentasuna, gizabidea, adeitasuna eta profesionaltasuna sustatuko ditu NGk, baita guztien eskubide, irizpide eta ezaugarriak errespetatzea ere.

NGk bultzatu behar du hornitzaileek Etika Kode hau berenganatu eta aplikatzea.

6. Ingurumena eta jasangarritasuna

Ingurumena babestu eta zaintzeko jarrera sustatuko duela hitzematen du NGk, eta, etengabeko hobekuntzaren bitartez, lankideak eta gizarte osoa ingurumenaren alde jartzen saiatuko dela.

Administrazio Kontseiluak zehaztu du Ingurumen Politika, hura baita Ingurumen Kudeaketaren arduraduna, eta helburu hauek ezarri dizkio NGri alor horretan:

1. Gizarteari balioa sortzea, ingurumenarekiko errespetua eta haren zaintza alderdi ekonomikoekin uztartuz eta Enpresa garapen jasangarriaren bidean jarriz.
2. Aplikatu behar den ingurumen-legedi eta -araudiak betetzea.
3. Etengabeko hobekuntzarekin bat datozen ingurumen-helburu eta xedeak finkatzea.
4. Ziurtatzea gure hornitzaileek betetzen dituztela Naturgas Energiaren ingurumen-eskakizunak.
5. Behar diren bideak jartzea gure lankideei ingurumen-alorreko trebakuntza, kontzientzia eta informazioa emateko.
6. Ingurumena babesteko gure konpromisoaren berri ematea gizarteari.

NGk hitzematen du jasangarritasun-kontzeptua erabakiak hartzeko prozesura bilduko duela, eta aztertuko duela Enpresaren jarduerak zer eragin duen lanean diharduen herrialdeetako ingurumenean.

7. Diziplinazko ekintzak

Etika Kode honen printzipioak betetzen ez dituen lankide orori ezarriko zaizkio diziplinazko ekintzak, egindako arau-urratzei dagozkien zigorren arabera.

